

EZKERRAREN OBLIGAZIOA

Ezkerrari buruzko gogoeta formalen sorta lazo hau (oraingoz) bukatzeko: ezker/eskuin konzeptuak erraztegi eta gehiegi erabiltzen ditugula, esango nuke. Usadioak gastatu eta alferrikaldu egingo dizkigu. Ta marxta honetan laster ez dugu jakingo, hitz horiekin zer adierazi nahi dugun.

Oraindik ez dagoela ezkerrik, esan dut: ez kultur-arloan eta ez politikoan. Formaten ari dela. Baina gehiegizkoa eta injustua iruditzen zait, gure desegainoaren poderioan, Euskal Herrian "politika azterrenik ere" ez dagoela, esaten bada: "Uste bai, politika egiten ari garela. Askotan "hori politika egiten ari da", entzuten dudanean, "komunean egiten dena egiten ari da" erantzuteko gogoia etortzen zait"; "politika beharrez, polemika egiten dugu" (G. Trintxerpe, ZA zehb. 537).

G. Trintxerpek ondoeza jeneral bat agertu digu. Egia da, edozein umekiari politikaren manto ederra jarri nahi izaten zaiola, edozer bultzatzen. Nazkantea da, balez ere, politikaren lide zaila benetan dararamaten bizkarretik hainbeste aholero "politikaren" negoziatzen ikustea. "(...) No es de ahora, el que unos estudiantes se reúnan para intercambiar teorías y conceptos retorcidos y se imaginen que con eso van a cambiar la base del mundo... Que escriban interminablemente sobre 'instrumentalización de debate', sobre 'inasimilidades organizativas' y otras pedanterías". Baina hitzontzi eta berrituko "politiko" batzuegatik ezin ahanztu dezakegu, benetan politikari dabilzanekin dadukagun zorra. Gau da, baina ez da egia, gureaz katu denak beltzak direla. Ez dago denak zaku berean sartzerik.

Dudarik gabe politikabideak ere erabaten ari dira, kulturbideak bezalaxe. Eta duda arrastorik ere gabe, esaten den baina politika gutiago dago. Baina 30 garrengo urteetan pentsatsen hasi zenak, badaki, urte haiek urrutu utzi ditugula.

ARRISKU BI

Ezkerri osatuko bada, biak beharko dira: ekintzak eta intelektuak. Utopiak eta ideologiak bezalaxe, programak eta errealisismoa.

Bietakoren bat zabartzeko arriskuari aisa igarriko dio irakurleak, inoiz bost minutu gure egoeraz pentsatsen gelditu bada. Errealismoa zabartu duguna, azken aldiko zenbait protestak garbi jartzen du. Baina protesta horietan beretan nabari daiteke beste arrisku bat: "ideologiak" zakurraren haizetat hartzekoa. Utopia eta ideologienganako gorrotoa bitzen ari dela, ematen du.

Tensio berriak sortu dira gure herri-mugimenduen barruan. Horietako bat eguneroko ekintzaren eta teorien arteko tirandura dugu, eta ondorioa zera da: teorikoek, beren aldetik, eguneroko ekintza berria izugarri gogorri jutzatzen dutela; ez dietela es-

timaziorik erakusten, lortu duguntxo apurrari; denarekin deskontent direla, ezek ez diela ezagutzarik eta aprobaziorik merezi. Baimenturik. Eta, aldrebes, jendea nazkatu egin dela, itxuraz ilargia eskuarekir harrapatu nahi ligituten intelektual kontentagaitzokin; eta aspertzen ari dela, haien predikio beti ederrak eta esientzia beti zorrotzak entzuten. Zenbat neke kosta zaio ekintzalarri ikastolak sortzea? Zenbat buruko min haiet bizirik eustea? Ba, ez dezala intelektualaren ezagumenturik espero, neke horienagatik: ikastolak sortzeak eta edukitzeak ez dadukala inportantziarik, esango dio guti-gorabehera intelektuak; ikastolen nolazkoa bakarrik dela inportante. Eta!ar. Tensioa nabarmen dago.

ANTIINTELEKTUALISMOA

Ideologia anti-ideologista, anti-intelektualistak indartuko ote zaizkigu? Arriskua badago.

Izan ere, "ideologia kalsikoen" —erlijioaren, tradizioen— krisiak, eta honenkin sortutako hutsuneak, orientazioa eta argia bilatzen zuten gartera baitan asko eraritzen zuten ideologia berrien arakasta. Baina ideologiok (herriok) ez dadukete beti "ideologia zaharren" kritika hutsatetik bizitzetik. Beren taldea praktikan erakutsi beharra dadukete; praktikoan orientazioa eta argia bait da, gaitzek nahi dutena. Ez "teologiaren" bat, edo "mistikaren" bat. Ideologia herri praktikan huts egiten eta potxo egiten badute, ordea (gertatzen ari den moduan), frustraziaren garbituko dituzte, ekarri ere gehintzat haixek ekarri zituen bezalaxe.

Aldex, aurretik aitortuko dut: 1. Intelektualek kritika oro antiintelektualismotzat hartzeko arrazoirik ez dagoela, kritika hori globalki egiten denean ere; eta, 2. Kritika horiek ondo moneziak ditugula.

Baina... kritika anti-teorikoa ere teoria bat da, eta anti-ideologia ere funtsean ideologia da. Ideologia suposatzen du, behintzat.

Hasia dugu han eta hemen erreazio hori. Bildur naiz, halako zenbait kritikan arrazoimen kritika ez baino desengainoa ez ote den mintzo. Ta orain arte gehiegikeria eta sinplekeria teorikoen arriskutik beti ondo salbatu ez bagara, honez gero nazkak anti-intelektualismoa botako ez ote gaituen, bildur izan gitezake. Bildur hau sortzen duten sintomak nonahi sumatzen dira. "Gure herriko jakintsua, intelektuala, hitz politen jaun eta jabea" bezala ikusten bada, eta ikuskera hori gogotik kantatu ere egiten bada, ez da arrazoirik gabe, baina ezta samintasunik gabe ere: "beti goitik behera begira zaudena, baina behin ere lurra ikutzen ez duzuna", "tertiari bakoitzean munda bat konponzen duzuna", etc. Ezin esango da honez gero intelektuala ondo ikusita dagoenik.

Ikastolotako katramilak esplikatzeko ere, teorikoen erruarekin bakarrik esplika litezkeela, dirudi: "Gaz-

teria teorikoen eskuetan dagoenean, eta ez hezitzaileen eskuetan, beti ezbehar lazak gertatzen dira".

Inolaz ere, intelektual amorratuak dira gureak, zakur amorratuak bezalatsuok. "Lehen gure herrian beldur ikaragarria zitaion amorrari. Zakur amorratuak ozka egin ez gero, pertsoa ere amorratu egiten bait da... eta gero denei ozkaka, atzamarka, ostikoka, ekin. Aizu, eta oraingo gure arteko intelektual batek ozka eginen badigu, zer? Txertorik ba ote da intelektual amorratziaren kontraktorik? A bai! Nere ustez bada bai; baina oso garestia eta alderdi hauean saltzen ez dena: jakinduria!" (G. Trintxerpe). Amorratuak, eta ezjakinak gainera, gure intelektualek.

Kritika hauekin eta antzeko beste askorekin jeneralean konforme nagola aitortu ondoren, eta neu ere kritika horixe jarraitu aurretik, higuin anti-intelektualistaren arriskua salatu beharra dagoela, uste dut. Bestela, berriz ere, aldrebes, baina lehenagoko gauza berbera gertatuko zaigu: intelektual batzuk situazioa eragabeki aprobetxatzea. Lehenago, hutsunean sentitzen zen jakin-mina eta orientazio gosa aprobetxatu badute intelektual batzuek, heurrek negozioa egitako eta gu guziok ideologikieretan murgil arazteko, orain sentitzen den nazka apro. etxatuz beste batzuk anti-ideologiaren ideologian pultupatuko gaituzte. Eta hori errealismoa d'elakean epongo gara, lehenago ideologiak "dientzia" zirelaokan gundun bezalaxe. Horrela osatuko dugu, joandako urteotan sortu dugun Absurdistango Errepublikak euskalduna.

Zeren-eta orainsuko zenbait kritikari sinestekotan, gure gaitz eta zorraitz guzien errua "intelektualek" eta "ideologiak" luketela, esango bait litzake... Uste hori zabaltzen eta indartzen bada, hurrengo pausara zera izango da: erreazio bezala, orain arteko pentsamenduak eta ideologiak erraz deskalfikatu (hitz gaitz batzuk aski izanen dira: ideologia, mito, utopia, metafisika) eta itxuraz ideologiari ez den eta ideologiak (oraingoak) despreziatzen dituen beste ideologia baten mende amilduko gara. Horregatixe seguruenik kontserbakorra izango den ideologiaren baten mende. Ta azkeneko urteotan hainbeste adorez sortutako ideia eta asmoak haizeak eramango ditu.

Halabaina, arrisku horren amenazoa gaineratzerak badoakigu ere, oraingoz gaitz nagusia ideologikieriak berak, "intelektualismoak" dirudi, ezpairik gabe.

TEORIA EKINTZA BATEGIN



Honek dirudi ezkerren gaurko zeregina, ezkerrik burutuko bada: teoria eta ekintza bategitea. Utopistak eta pragmatikoak uztartzea. Teoria cum praxi, esaten zuen Leibnizek, latinez eta dena (bidenalar) esateko: guk gauza tipiko marxistatatz daduzkagun beste gauza askoren antzera, teoria eta ekintza bategitea ere ez bait da batere marxista tipikorik, mendealeko tradizio arruntaren ezaugarri orokorrenetako bat baizik, Greziarekin hasi eta gaur arte...)

Honek orain Euskal Herrian lehenbai lehen eskatzen duen gauza bat, teoriaren eta ekintzaren berezuntza lortzea da: ideologiena eta ekintzarena, bat ere. Batasun egokirik lortuko bada, berezuntza garbia behar da lehenago. Bion batasunik antoia-tzeko, bakoitza zer den eta bakoitzari zein hesparru ta zein eginkizun tokatzen zaion, jakin beharra bait dago, bakoitzaren bestearekiko funtzioa ezagutu beharra dagoen bezalaxe. Bestela beti biok nahasten jarraituko gara, azken judizioz arte.

Jose AXURMENDI



YOGUR
GURELEJA
GOGOZKOENA



SUKALDEKO MUEBLEAK

EDERRAK BEZAIN EGOKIAK

FELIX ETXABE, S. L.

Urrutizkiña: 891754

ZALDIBIA (Guip.)